

**835/2009 Ebazpena, maitzaren 27koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariarena. Ebazpen honen bidez, agindua ematen da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web orrian argitaratzeko B.2 (Erdi-Mailako Teknikariak) aldi baterako kontrataziorako behin betiko zerrendak, hain zuzen ere hutsik dauden lanpostuena eta ordezkapenena.**

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2008ko maiatzaren 29ko Erabakiaren bidez (EHAA 198 zk, 2008ko urriaren 16koa), egokitu egin da aldi baterako pertsonal estatutarioa Enteko zerbitzu-erakundeetan sartzeko sistema arautzen duen 2004ko urtarrilaren 26ko Erabakia, 2006ko Lan Eskaintza Publikotik eratorritako aldi baterako kontratazio-zerrendak prestatzekoa dena.

Zerrenda berriak 2008ko maiatzaren 29ko Erabakiak araututako irizpideen arabera ordenatuta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariaren abenduaren 16ko 1508/2008 ebazpenaren bidez, Osakidetza web orrian B.2 Lanbide Taldeko (Erdi-Mailako Teknikariak) aldi baterako kontrataziorako behin-behineko zerrendak argitaratu ziren, hain zuzen ere lanpostu hutsena eta ordezkapenena.


Aipatutako aldi baterako zerrenden inguruko erreklamazioak aztertuta,

### **EBATZI DUT:**

**Lehenengoa.-** Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web orrian argitaratzea B.2 Lanbide Taldeko (Erdi-Mailako Teknikariak) aldi baterako kontrataziorako behin betiko zerrendak, hain zuzen ere lanpostu hutsena eta ordezkapenena.

**Bigarrena.-** Ebazpen honen aurka, interesa duten izangaiek hilabeteko epea izango dute ebazpen hau argitaratu den egunetik hasita, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari gora jotzeko errekurtoa jartzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko maiatzaren 27a



Osakidetza  
Carlos Belva Fernández  
Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendaria  
JOSE ANDRÉS BLASCO ALTUNA  
Organización y Despliegue